Bergarako Udala

# Ikasleei zuzendutako "Bergara Bizi" bonu-laguntza arautzen duen udal ordenantzaren AURRETIAZKO KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

> *"1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*
>
> a) *Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
>
> b) *Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
>
> c) *Arauaren helburuak.*
>
> d) *Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak."*

Bergarako Udalaren asmoa da iaz hasitako bideari jarraituz ikasleei eta hauen familiei laguntza ekonomikoa ematea ikasle bezala dituzten beharrizanetarako erosketak egiteko eta bide batez laguntza ekonomiko hori herriko komertzioetan geratzea, horretarako bonuak banatuta baldintzak betetzen dituzten herritarrei.

Dirulaguntza hauek denboran irautea aurreikusten denez, egokiena ikusten da ordenantza espezifiko baten bitartez arautzea.

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du Bergarako Udaleko ikasleei zuzendutako "Bergara Bizi" bonu-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren aurretiko kontsulta publikoa egitea (ordenantza onartu baino lehen).

Horrenbestez, egoki iritzten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteek parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz **2022ko uztailaren 6ra arte,** bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: idazkaritza@bergara.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuz (San Martin Agirre plaza 1).

## ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, udal honi aplikatzekoak, 3.1 b. eta 9.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eskatzen du dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu beharko direla lege horretan ezarritako moduan, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu. Bestalde, lege horren 17.2 artikuluak ezartzen du toki-

korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak hauetako modu batean onartu beharko direla: aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate bakoitzerako ordenantza espezifiko baten bidez.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa betetzeko, dirulaguntzak emateko oinarriak arautuko dituen esparru juridiko egokia onartu behar da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrera eta Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretura zein Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legera egokituta, eta ordenantza espezifikoa izatea da egokiena ikusten dena, lehen esan bezala,  laguntza hauek denboran irautea aurreikusten delako.

## ORDENANTZAREN HELBURUAK

Ordenantza honen xedea da ikasleen beharrizanetarako erosketak egiteko (arropak, oinetakoak, kirol materiala, eskolako materiala, material informatikoa, betaurrekoak eta lentillak, etab.) bonuen bitartez emango den laguntza ekonomikoa arautzea.

## EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ ERREGULATZAILEAK

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 17.2 artikuluak ezartzen du toki-korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak hauetako modu batean onartu beharko direla: aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate bakoitzerako ordenantza espezifiko baten bidez.

Horrek xedatzen du, toki-administrazioaren esparruan, Udalbatzari dagokiola ordenantza onartzea arauak adierazten dituen hiru bideetako baten bidez; izan ere, tresna horiek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio, eta eskuordetu ezina da.

Horrela, baimendutako hiru bideetatik laguntza hauetarako ordenantza espezifikoa dela egokiena uste da.

Argitaratze-data: 2022-06-16

Bergarako Udala

# CONSULTA PREVIA sobre la ordenanza municipal reguladora de los bonos-ayuda "Bergara Bizi" para el alumnado

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas— ha implicado novedades a la hora de redactar leyes y reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados.

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas—, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

> *"1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*
>
> e) *Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
>
> f) *La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
>
> g) *Los objetivos de la norma.*
>
> h) *Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias."*

El Ayuntamiento de Bergara, siguiendo el camino iniciado el año pasado, tiene intención de conceder una ayuda económica al alumnado y a sus familias para realizar las compras que como estudiantes necesitan, beneficiando al mismo tiempo con dicha ayuda a los comercios del municipio, a través de la distribución de bonos destinados a las personas que cumplan los requisitos.

Dado que se prevé que estas subvenciones se mantengan en el tiempo, se considera más adecuado que se regulen a través de una ordenanza específica.

Con el fin de dar cumplimiento al procedimiento establecido en la Ley 39/2015, el ayuntamiento ha decidido someter a consulta pública, previa a su aprobación, la ordenanza reguladora de los bonos-ayuda "Bergara Bizi" dirigido al alumnado, del Ayuntamiento de Bergara.

Por tanto, las personas, organismos o asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones **hasta el 6 de julio de 2022,** por cualquiera de estas dos vías:

- Mediante correo electrónico enviado al buzón idazkaritza@bergara.eus
- Presentando sus sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martin Agirre 1).

## NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, de aplicación a este ayuntamiento, en virtud de lo dispuesto en su art. 3.1 .b. y en su art. 9.2, exige que, con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, se aprueben las bases reguladoras de concesión en

los términos establecidos en dicha ley, debiendo publicarse en el boletín oficial correspondiente. Por su parte, el art. 17.2 de dicha ley establece que las citadas bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales deben aprobarse en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

A fin de dar cumplimiento a lo expuesto en el párrafo anterior, se hace necesaria la aprobación de un marco jurídico adecuado regulador de las bases de concesión de subvenciones, adaptado tanto a la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones como al Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el cual se aprueba el Reglamento General de Subvenciones, y a la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, considerándose lo más adecuado hacerlo a través de una ordenanza específica, ya que como se ha mencionado anteriormente se prevé que estas ayudas se mantengan en el tiempo.

## OBJETIVOS DE LA ORDENANZA

La ordenanza tiene por objeto regular la ayuda económica que a través de bonos se concederá para realizar las compras necesarias para el alumnado (ropa, calzado, material deportivo, material escolar, material informático, gafas y lentillas, etc.).

## OTRAS OPCIONES REGULATORIAS O NO REGULATORIAS QUE PUEDAN EXISTIR

La Ley 38/2003 General de Subvenciones en su art. 17.2 establece que las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales deben aprobarse en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Lo que determina que, en el ámbito de la Administración Local, su aprobación corresponda al Pleno Municipal a través de alguno de los tres cauces que señala el precepto, ya que la competencia atribuida para la aprobación de estos instrumentos corresponde al Pleno teniendo la misma carácter indelegable.

Así pues, de las tres vías autorizadas, se considera que para estas ayudas la más adecuada es la ordenanza específica.

Fecha de publicación: 16/06/2022